

ASTURIASEKO

EKIALDEKO KOSTA

ZEHARKALDI BATEN KRONIKA

Deva eta Sella ibaien artean, guztiz harrituko gaituen kostaldea topatuko dugu. Ura zerurantz jaurtitzen duten bufoiek, gure ametsetan bakarrik topa ditzakegun hondartzek eta itxura orotako itsaslabarrek osatzen dute Bustiotik Ribadesellara doan kostala zirrargarria. Batzuetan Asturiaseko kostaldeko xendra (GR E-9) jarraituz, beste batzuetan iparraldeko Done Jakue bidearen arrastoei so eginez edota bidetik kanpo zelaia zaharkatuz, 72 kilometroko bidea egingo dugu bi etapatan. Alde batera mendien berde kolorea eta belar bustiaren freskotasuna eta beste aldean, berriz, itsaso urdina eta kresalaren usaina izango ditugu beti bidelagun, sentipen ezberdinez jositako klima sortuz, bidaia berezi batean murgilduz.

1. ETAPA BUSTIO-NAVES

46 KM | +850 M | -860 M

Larunbatean, goizeko lehen argiekin, sortaldetik hasita, Asturiaseko Bustio herrian dagoen Tina Mayor ibaiaren bokalaren bihotzean hasi dugu gure abentura Mikel, Mendi eta hirurok. Arrotzak gara, baina jendea ez da harritzen gure motxila handiak ikustean, erromes asko baitabil inguruan. Jakin badakigu euriak harrapatuko gaituela, hala dio eguraldiaren iragarpenak eta horregatik daramatza-gu kanpin-dendak soinean.

Tinako mendilerroan gora eginez, Pimian-go da zaharkatu beharreko hurrengo herria. Bertan, eta hala nahi izanez gero, UNESCOren ondarea den eta bere barnean Paleolito Aroko marrazkiak biltzen dituen Pindal kobazuloa famatua bisitatzeko aukera dugu. Eukaliptoen

basoan barna beheara egin ondoren, La Franca N-634 errepidea zaharkatu dugu Done Jakue bidearekin lehenengo aldiz bat eginez. Pixkanaka, kostaldera hurbiltzen goaz, Santiusteko bufoiak topatu arte. Bufoiak itsas ertzeko harkaitzetan zabaltzen diren zuloak dira, itsasoa lautadarekin lotzen dituztenak eta sagailo egunetan olatuen talkarekin ura 30 metroko altueraraino jaurti dezaketenak. Benetako ikuskizuna gure zentzumenetarako, baina gaur itsasoa ez dago gure alde eta Bramadoriaren amasa entzun dezakegu, besterik ez. Hori da hemen ematen dieten izena.

Orain bidearen egiazko dinamika hartu dugu, beti sartalderantz Kantauri itsasoaren muga jarraituz, karsta larre berdeekin elkar trukaturik. Gure hurrengo geltokia Cobijeruko hondartza txikia da, oasi bat balitz bezala lur barnean ageri da itsasotik bananduta. Monu-



TEXTO Y FOTOS



Iván Ruiz Rotaèche.
(Amurrio, 1982).

Euskal Herriko mendiak eta bazterrak ezagutzea da bere zaletasun garrantzitsuenetako bat. Amurrioko Kuskumendi MBT eta Mendiko Lagunak taldeetako bazkide eta Pyrenaicako erre-dakzio taldeko kidea da. Bere irteerak www.elultimodestino.wordpress.com blogean argitaratzen ditu.





Cue hondartza.

mentu Natural izendatutako eremua da hau, izen berdineko kobazuloa eta gune karstikoarekin batera. Baina mendebalderantz jarraitu behar dugu bidea luzea da eta. El Picón izeneko harkaitz zorrotzak badiaren erdian gure begiradak erakartzen dituen bitartean, Buelnako kalatik igaro gara.

Pendueles herrira iristeko, barnealderantz abiatu gara berriro. GR E-9 ibilbidearen baliak eta berriztatutako garai batek eman digute ongietorria hara iristerakoan. Garaiak lau zutaberen gainean sostengatzen diren eraikuntzak dira, elikagaiak eta uzta heze-

tasun eta animaliekiko babesteko. Erortzen ari den eraikuntza handi batek gure arreta erakarri du, XIX. mendekoa den eta gerra zibillean ospitale moduan erabili zen Mendoza Cortina jauregia hain zuzen ere. Ugariak dira ibilbide osoan zehar topatu ditugun eraikuntza indianoak.

**Sagailo egunetan,
bufoiek ura 30 metroko
altueraraino jaurti dezakete**

La Paz kanpinaren instalazioak inguratu ostean, Vidiagoko hondartza eskuinera laga dugu. Kilometro gutxi batzuk ditugu aurretik garoz inguratutako dagoen xendra jarraituz Arenillasko bufoi famatuetara iritsi arte. Beste behin, itsasoaren gutziak atsedena hartzera gonbidatzen gaitu, erlaxatzeko musika bailitz lurreko arrailetik ateratzen den airearen zurrumurrua entzuten dugun bitartean. Baina etaparen erdiaren inguruan gabiltza eta aurrera jarraitu behar dugu zurezko zubi batetik Purón ibaia zeharkatuz. Babestutako tokia da hau, izokinak eta igarabak bezalako espezieak topatu



Niembroko badiaren atzeko aldean dagoen Nuestra Señora de los Dolores eliza.

daitezke hemen eta hain sarri topatuko ez ditugun arteen artean bidean aurrera egin dugu.

Gure urratsek Andrín herrira eraman gaituzte eta bertan La Borizako behatokira daraman bidea hartu dugu. Ikuspegi zoragarria dugu hemendik, ehun eta berrogei metroko altueran gaude, La Ballota eta Andrineko hondartza sasi-bikiak gure azpian ditugula, Castro Ballota izeneko uhartea bien erdian ageri delarik. Eta bitartean, bai ekialderantz zein mendebalderantz, Asturiaseko kostaldearen kilome-

tro askotako ikuspegi bikaina. Ondoren, larre berdeen artean bideak Cue hondartzara garamatza. Benetan harritu egin nau toki honek, hiru uharte txikiz osatutako harresi naturalak hondartza babestu egiten du urpekaritzarako leku aproposa bihurtuz. Pirata film batetik ateratako ingurua ematen du.

Eta hala, itsaslabar zorrotz eta zulatuen artean aurrera eginez, pixkanaka Llanes herri famatura heldu gara, Portiello, Toró eta Puerto Chico hondartzak atzean lagata. Herrira

iristean, Agustin Ibarrolaren Los Cubos de La Memoria lanak agurtu gaitu. Ez dut obra ona ala txarra den esango, baina aitortu beharra dago portuko porlanezko kubo horiek margotzearen ideia ez lukeela edonork izango. Portura goazela pausua moteldu egin dugu arrantzaleen etxe zaharrak ikusterakoan. San Pedroko pasealekuan bazkaldu dugu herriko panoramika eder batekin eta amaitzerakoan, beste behin labarraren ondotik gure bidea jarraitu dugu mendebalderantz, olatuen talka gure oinen azpian sentituz.

Llanes herrira iristean, "Los Cubos de la Memoria" lanak agurtu gaitu

Gertaera barregarri bat izan dugu hemen, hesi elektriko bat igaro behar eta errazago igarotzeko makilarekin pixka bat jaistea erabaki dut, baina ez naiz konturatu ez dudala gomazko heldulekutik hartu eta... zas!! A ze nolako deskarga! Mikel ere nire atzetik doa eta antzeko akatsa egin du deskarga hartuz ere. Laster, Pooko uharteak ageri dira Kantauri itsasoan, piraten pelikulak datozkit burura berriz ere. Borobil itxura hartzen dute ia-ia; itsasontzi bat ezkutatu liteke han edo agian altxorren bat. Batek daki! Poo hondartzako harea zapaltzerakoan gure oinak erlaxatu egin dira, eskertzekoa baita noizean behin zoru biguinak topatzea.





Gulpiyuriko barne hondartza txikia.

Asturiaseko kostaldearen xendrarekin egin dugu bat berriro, El Portillu hondartza atzean utzi eta Celوريا iritsiz. Niembroko badiara iristeko Done Jakue bidea jarraitu dugu. Nuestra Señora de los Dolores eliza ageri da senadiaren beste aldean, uraren gainean flotatzen balego bezala; ibilbide osoaren argazki politenetako bat egin dugu hemen. Niembro herria zeharkatu ondoren, Cerro Castiello mendiaren bizkarrera igo gara, Torimbia hondartzaren ikuspegi polita izateko. Bedón ibaiaren bila aldapa behera jarraitu dugu, XIII. mendekoa den San Antolín monasterio erromanikora iritsiz. Gaua pixkanaka gainera datorkigu, beraz ibaiaren beste aldera igaro eta kanpin-dendak muntatzeko zelai babestu bat bilatu dugu. Euria hasi du eta ez gara dendetatik gau osoan irtengo,

Mendi izango da inguruan bueltaka ibiliko den bakarra, zaintzaile lanak egin nahian edo.

2. ETAPA NAVES-RIBADESELLA

25 KM | +340 M | -330 M

Esnatzean, oraindik ez da eguzkia atera eta dena blai eginda dago eta honek gure eguna markatuko du. Dendak gorde ostean, pixkanaka eta pausu nagiez hasi dugu ibilaldia. Zirimiria gu gelditu nahian dabil, baina denok dakigunez euskaldunok burugogorrek gara eta ez gaitu ezerk geldituko. Bakoitza gure pentsamenduetan murgilduta goazela, Gulpiyuriko hondartzarekin egin dugu topo bat batean. Zelai baten erdian, zulo handi batean sartuta, oasi moduko barne hondartza da ola-

tu eta guzti. Ezinezkoa dirudi. Pena da eguzki argirik ez egotea askok munduko hondartza txikiena dela diotenari argazki on bat egiteko.

Itsaslabarren bila jarraitu eta Villahormesko arroila agertu da gure bidean. Hemen, alga gorriak ateratzeko erabiltzen ziren garabien arrastoak topatu ditugu. Alga hauek ongarri bezala erabiltzen ziren aspaldian eta orain industria kimikoan erabiltzen dira. Lan honetan jarduten duten enpresek beren ortu propioak sortu dituztenez, ustiaketa modu hau alde batera geratzen ari da. Eboluzioa dela eta, ohitura zahar guztiak pixkanaka desagertzen ari dira. Hau da hau patua! Baina arroiaren atzean bada gure arreta deitzen duen harkaitz bakarti bat, itsasoaren indar bortitzaren kontra bi hanken gainean zutik eusten diola dirudiena. Castro de las Gaviotas edo Islote Desfuracado moduan



Poo hondartza.

ezagutzen dena da, itsasoak nahi izan duen eran moldatutako kareharri erraldoia.

Huelgako hondartzara jaistea da hurrengo urratsa. Egurrezko zubi ginetik Cecilio erreka zeharkatu ondoren, bi garai bakartirekin egin dugu topo. Itsasoaren olatuengatik babestuta, beste algen ustiapenerako ortu bat ikusi dugu urrunean, baina Villahormesekoarekin alderatuta badauka ezberdintasunik, itsasotik banantzen duen 6 metro baino altuagoa den harresia baitauka. Euriak berriz ere eguneko antzezle nagusia izan nahi du San Antonio basilizarako bidean gaudenean, izen berdineko lurmuturrean kokatua dagoena. Handik igaro ondoren, Nueva ibaiaren bokalean dagoen eta nahiko famatua den Cuevas del Mar hondartzara hurbildu gara. Itsasoaren higadurak kobazulo anitz zabaldu ditu inguruko labarretan, itsasbeheran horietako asko bisitatu daitezke-elarik. Etxeko txikiakin joateko toki aproposa da, abentura grina zabalduko die ziurrenik.

Villanuevako hondartza eta herria bisitatu ostean, bagoaz mendebalderantz lasai asko, Pozo de las Grallas bezala ezagutzen den putzuaren bila. Igerileku natural baten modukoa da, baina ez dauka uretara jaisteko bide aukerarik. Dolinen artean pausoka aurrera eginez, Priako bufoietara ailegatu gara, Bramadoriaren indarraz gozatzeko beste toki apropos bat. Bufoietara heltzen garen bakoitzean pena handia ematen dit egun aproposa ez izateak, ura zerurantz indarrez nola jaurtitzen duten ikusteko. Baina tira, badaukagu beste noizbait itzultzeko aitzakia orain.

Guadamiako hondartza azaldu da orain gure bidean, hau ere zeharkatu beharrekoa. Itsas ertzaren ondotik goazela, beste bufoi batekin egin dugu estropezu eta han dauden mahai eta eserlekuak atsedean hartzeko erabili ditugu. Oinetakoak kentzean, egun osoan zehar oinak bustita ditugula ibiltzeak, babak oinpean sortu dizkidala ikusi dut, baina eskerrak kilometro gutxi faltan zaizkigula gure helburua lortzeko.

Zerbait jan eta martxan gara berriro. Tuzarri-zuko itsaslabarrak atzean laga ditugu, uraren higadurak sortu dituen arku naturalak argazkitan islatzen goazen bitartean. El Infierno izeneko olgetarako parkera iristerakoan, Done Jakue bidea hartu dugu azkenekoz, Ribadesellako herrian sartzeko asmoz, ibilbide honen amaiera.

Ez dugu edonolako herria aukeratu abentura hau amaitutzat emateko, izan ere, Ribadesella XIX. mendeko Asturiaseko itsas portu garrantzitsuenetakoa izan zen. Herriko erakuntzetan nabaritzen da itsas-bizitzak herriaren kultura izandako eragina. Gainera, herrian bertan, Unescoren ondarea den Tito Bustillo kobazuloa dago eta bere barnean marrazki prehistorikoak ikusi ahal izango ditugu. Baina, benetan zerbaitek famatua egiten badu herri hau Sella ibaia da. Urtero abuztuaren 2aren hurrengo larunbatean, nazioarteko Sella-aren jaitsiera ospatzen da, milaka pertsona mugiarazten dituen kirol ekitaldia.

Ribadesellan, UNESCOren ondarea den Tito Bustillo kobazuloa dago

Sta. María Magdalena elizaren ondotik doan kalean gora, XIX. mendeko Torre de la Atalaya dotorearen azpitik pasa gara. Sella ibaiaren bokalaren panoramikaz gozatuz, Virgen de la Guíako basilizara iritsi gara, zeharkaldi honen amaiera sinatuz. Han dauden kanoiek Carlos I.-aren garaietara garamatzate denboraren bidaia batean zehar, XVI. mendera hain zuzen ere, orduan santutegia gotortu baitzuten Ribadesella beste herrien erasoengandik babes-teko. Garai latzak zalantzarik gabe.

Helburua lortu izanak zoriontsu egin gaitu. Atsedena hartu eta kresalak laztantzen gaituen unean, egindako bideak eta ikusitako pa-rajeak gogora ekarri ditugu. Ederra!



Arenillaseko bufoia.

MAPAK

IGN MTN 25: 31-1, 31-2, 32-1, 32-3 eta 32-4 orriak.

BIBLIOGRAFIA

Luna Adrados. *Costa Oriental de Asturias, un paisaje singular*. Adrados, 2014.

LOTURA INTERESGARRIAK

TURISMO ASTURIAS

<https://www.turismoasturias.es/descubre/naturaleza/espacios-protégidos/costa-oriental>

ITZULTZEKO

Ribadesellatik Unquerara autobusez

<https://www.alsa.es/nuestros-destinos/nacionales>

Ribadesellatik Unquerara trenez

<http://www.renfe.com/viajeros/feve/>

LEHENENGO ETAPAREN GPS ARRASTOA

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=805293>

BIGARREN ETAPAREN GPS ARRASTOA

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=812566>



Ribadesella, gure abenturaren amaiera.